

# ⇒ Hizpide ⇒

## Euskal haur poesia milurte berrian

Manu Lopez Gaseni • Xabier Etxaniz Erle



**E**uskaraz argitaratzen den poesia oso irakurle gutxiengana iristen den generoa da baina, hala eta guztiz, nahiko kalitate onekoa. Hasi berria den mende honen lehen zortzi urteetan hogeitaz liburu argitaratu dira aurreko urteetako joerari eutsiz, eta egile guztien artean Juan Kruz Igerabide izan da azken bi hamarkadetan euskarazko haur poseian eragin handiena izan duen idazlea, bere praktika poetikoa dela eta, baina batik bat haikuen ekarpenetatik eta naturarekiko ikus-sentsibilitateetatik. Horrez gain, herri poesiaren oihartzuna eta eragina ere oso presente daude gaur egungo poesian, eta gazteentzako poesietan, aldiz, gai inizatikoak, maitasunezkoak eta bizi-larritasunaren ingurukoak dira nagusi.

## Mende honen aurrekoak

Euskal haur eta gazte poesia lanak erabat minoritarioak dira narratiba nagusi den genero batean. Baina egoera hori ez da berria. Euskal HGLren historia laburrari begirada bat botatzen badiogu, ezaugarri hori behin eta berriro errepikatzen dela ohartuko gara: Jules Moulier, *Oxobi*, alegilari behenafarra (1888-1958) izan zen aitzindarietako bat bere *Haur-elhe haurrentzat* (1944) lanarekin; haren ondoren Nemesio Etxaniz (1899-1982) idazle gipuzkoarraren *Lur berri billa* (1967) etorri zen, haurrentzako genero batzuen artean poesia ere lantzeraz; baita Marijane Minaberry (1926-) behenafarra ere, *Xoria kantari* (1965) haur poesi bildumarekin.

Geroztik, 80ko hamarkadan bereziki, folkloreak ondaretik hautatutako piezak aurki ditzakegu, hala nola Xabier Etxanizen *Haur folkloreaken bilduma* (1986); edota folklorea berreginez eta jostailu bihurturik egindako lan berriak, Anjel Lertxundiren «Maria Goikoarenak» (1985-86) sailean ikus daitekeen legez.

Idazlan solte eta tradiziotik etorritako horien ondoren 90eko hamarkadara iritsita, haur eta

gazteentzako poesiagintza, bere txikian, indartu eta batez ere prestigioz jantzi zela esan daiteke. Hamarkada osoan 17 berezko haur poesi bilduma ditugu, eta beste bi nagusiki igarkizunen ingurukoak. Hazkundera, esan dugun bezala, ez da kuantitatiboa izan soilik, kualitatiboa ere izan baita.

Jauzi horren eragile nagusia, ezbairik gabe, Juan Kruz Igerabide izan zen, alderdi teoriko zein praktikotik: *Begi-niniaren poemak* (1982) poesi bilduma txalotua berehala bihurtu zen aurrerantzean haur poesia landu nahi izan zutenen erreferentzia-gune. Igerabide iturri askotatik edandako poeta dugu: eragin indartsu eta emankorrenak euskal aho-tradiziotik eta haiku japoniarretatik jaso baditu ere, Europako hegoaldeko ahozko literaturatik, Espainiako poesia kultutik eta tradizio anglosaxoiko *nursery rhyme* eta *limerick* direlakoetatik ere edandakoa da, aipatutako *Begi-niniaren...* horretan ez ezik, *Egun osorako poemak eta beste* (1993), *Haur-korapiloak* (1997) edo *Botoi bat bezala / Como un botón* (1999) poema-bildumetan egiazta daitekeen legez.

XX. mendeko azken hamarkadako beste poeta interesgarri batzuk Karlos Linazasoro (1962-),





Antton Kazabon (1954-), Pello Añorga (1956-), Joxan Ormazabal (1948-), eta Jabi Santa Cruz (1964-) izan ziren.

### XXI. mendea

Milurte berriko lehen hamarkada hau aurreko joeren jarraipenaren lekuko izaten ari da. Orduko poeta batzuek heldutasuneko lanak argitaratu dituzte, eta beste batzuek, berriz, lehenbiziko lanak.

Juan Kruz Igerabidek lau poesi liburu argitaratu ditu: *Hosto gorri, hosto berde / Hoja roja, hoja verde* (2002) lan elebiduna; *Gorputz osorako poemak* (2005); *Ilargia ezpainetan* (2006); eta joera didaktiko nabarmena duen laugarren bat, *Munduko ibaien poemak* (2004).

Lehenengoa haiku bilduma bat da, Atenea argitaletxe madrildarrak argitaratutako edizio elebidunean. Igerabidek aurretik argitaratutako *Begi niniaren...*, *Egun osorako...* eta *Botoi bat bezala* liburuetan hasitako bideari jarraitzen dio *Hosto gorri...* honetan. Hosto gorria, eroritakoa, zuhaitzari lotzen zuten lokarrietatik libre, bere buruaren jabe den eta heriotzarantz dabilen

gizabanakoaren sinboloa da. Hala, liburuko lehen atalean, hotzak harrapatutako hostoaren ahulezia islatzen duten poemak aurki ditzakegu:

Kale gorrian  
ihintzaren mende  
hosto dardartia.

Beste poema batzuek erioterako prestakuntza eta heriotza bera dute gai:

Poemak otoitz  
hostoak haizearen  
esku hiltzean.

Basoak azken  
nahia, hiltzorian,  
orri bakanetan.

Ardoa edaten  
hosto gorri-morea:  
laster hilko da.

Liburuko bigarren ataleko hosto berdea, berriz, eskarmentu faltaren sinboloa da, mugagabeko denboradun haurtzaroaren sinboloa, eta hosto zein zuhaitz mota askotarikoen bidez adierazia dator.



Hona hemen, adibidez, aurrekoaren kontrapuntua izan daitekeen poema bat:

Hain alaiak dira  
mahatsondo-hostoak  
edan gabe ere!

Haurtzaroko poz hori, sarritan, jolasaren bidez adierazten da:

Horri txorrotxa  
eguzki errainuekin  
esgrima egiten.

Halarik ere, heldutasuna eta askatasuna da haien patua, hosto gorri bihurtzea:

Hostoak amets:  
zeruan dabilela  
handi egitean.

Metroak ezarritako ekonomiarekin egilea eroso sentitzen dela dirudi: aditz elipsien bidez zein hitz konposatuen bidez egiten dio aurre erronkari, Lizardirena bezalako poeten kontzeptualtasunari hurbilduz.

Igerabideren bigarren poema-liburua, *Ilargia ezpainetan*, irakurle gazteei zuzenduta dago. Zazpi atalez osatua, haiku delakoa beste bertso mota

batzuekin tartekatzen du. Hasierako poemetan titulua hartzen du hizpide, eta ilargiaz aritzen da umorerik falta ez duen begiradarekin:

Partxiseko fitxa da  
ilargia,  
zeruraino iritsita.

Hurrengo ataletan, berriz, nerabezaroaz heltzeaz, maitasunaz eta babesgabetasun sentrazioaz mintzatzen da:

Izan nuen  
andregai bat  
berak jakin gabe.

Zenbat etxe  
eta zein babes gutxi  
hiri honetan.

Une jakin batetik aurrera, poema-liburua ilundu egiten da, eta gero eta sarriagoak dira bere sufrimenduekin atsegin hartzen duten ahots nerabeak: amaren heriotza, bakardadea, babes falta.

Ohe-tapakiaren gainean  
amaren eskuen  
pisu leuna falta zait.







Azkenean, heldutasunaren onarpenaren bidez, oreka-puntu batera iristen dela dirudi:

Ibaiak bihurgunean  
zalantza egiten du  
baina aurrera doa.

*Ilargia ezpainetan* honetan amore ematen ez duen lirika heldu zehatzera iristen da poetaren bilakaera.

Hirugarren lanean hamabost urte lehenago argitaratutako liburu baten izenburuarekin jolastu du (*Egun osorako poemak eta beste*) eta orain, gorputzeko atal ezberdinak erabiltzen ditu oinarri moduan bere poemak egiteko; ilea, sabela, zilborra... eta atal orien inguruan, deskribapenak eginez edo horiek iradokitzen dutenean oinarrituz estilo eta teknika ezberdineko poemak egiten ditu.

Igerabideren laugarren lana, *Munduko ibaien poemak* (gazteleraz *Poemas para los ríos del mundo* izenez argitaratua, Hiperion, 2004), giro didaktikoa duen bigarren mailako obra bat da. Liburuak munduko ibai batzuetan zehar ibiltzen da, kontinentez kontinente, eta Euskal Herriko ibaien poemekin ixten da.

Joxantonio Ormazabalek hiru poema-liburu argitaratu ditu aldi honetan: *Bihotza zubi* (2001), *Irri eta barre* (2002) eta *Ilunorduak eta argilaurdenak* (2007). Oso obra desberdinak dira: lehenengo narrazio eta poemen bilduma bat da, hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendua; poemetan, aurreko hamarkadan argitaratutako *Hitzak jostailu* izenekoaren zordun da, poema batzuei darien kutsu didaktiko-moralaren aldetik.

Bigarrena sei urtetik aurrerako haurrei zuzenduta dago, eta egileak aurreko hamarkadan argitaratu eta ahozkotasunean oinarritutako beste poema batzuen tonua berreskuratzen du (Lopez, Etxaniz, 2005: 85-86). Lehenengo poematik beretik, «inor ez aspertzeko eta jolasteko» liburu bat iragartzen da. Eta halaxe da, izan ere: jostailu-liburua da hau, hitz akrostiko bat ezkututzen duten poemez, igarkizunaren egitura duten konposizioez, kantuez, txiste lañoak kontatzen dituzten poemez, ohiko «Barrehiztegia»z eta abarrez osatutakoa. Aurreko obra batzuetan egin zuen legez, Ormazabalek dekorazio-olerkia, onomatopeia eta jolas bokalikoa darabiltza, inauteria, urtaroak, lanbideak, garraiobideak bezalako gaien inguruan.

Egilearen hirugarren lana, *Ilunorduak eta argilaurdenak*, aurreko poesi liburuetakoko forma herrikoietatik aldentzen den gazteentzako poemategia da. Liburu honetakoko poemetan «tempus fugit» topiko klasikoak da nagusi, naturako elementuen bidez zein egunaren eta gauaren arteko dikotomiaren bidez garatuta. Naturako elementu horien funtzioa ere ez da lehenagoa: aurreko obretako denbora zirkularra zen, eta haren inguruan ibitzen ziren jira-biran urtaroak, eguna eta gaua, hilabeteak... etengabe berritzen den munduaren metafora gisa. Oraingoan, berriz, denbora lineala da, eta jaiotzatik heriotzara garamatza; denbora horren bidez, poetak apenas ez du esperantzarako zirrikiturik uzten.

Liburuaren tituluaren zentzua erabat azalduta geratzen da 33. orrialdeko poeman:

Urpekariak  
aldika-aldika  
burua ateratzen du  
ur azpitik.  
Nik ere nahi nuke  
ilunordu bakoitzeko  
argilaurden bat,  
arnasa hartzeko.

Poetak bizi-larritasunari aurre egiteko proposatzen duen irtenbidea zoriona maitasunaren bidez bilatzea (poema batzuk ditu gai horri buruz) eta gauza txikiez gozatzea dira:

Ez eutsi.  
Utzi joaten.  
denborari  
eguzkiari  
ibaiko urari.  
Ez izan presarik  
zoriontsu izateko.  
Zoriontasunaren bila  
zabiltzan bitartean  
ez baituzu aurkituko.  
Edan ur garbia  
bizitzaren iturritik.  
Dastatu eguzkiaren argia  
zauden lekutik.  
Zoriontasuna dator  
konturatu gabe zoriontsu izatetik.

Obra honetakoko beste gai bat idazteko ofizioa bera da, hau ere mingostasunez tratatua:

Poetaren arnasa  
hari mehe-mehea.  
Poetaren ametsak  
hodei suntsituak.  
Poetaren liburuak  
hautsez estaliak.  
Poetaren hitzak  
hutsak.  
Poetaren otoitza  
amen.





Poetaren bizitza  
hari mehea  
eten.  
Eta denok gara poetatxo  
hemen!

Poema irakurketa ausazko batean bestelakoa badirudi ere, liburuak bere osotasunean aldi berean egonezinaren eta sakontasun lirikoaren inpresioa uzten dio irakurleari. Gure panoramako beste poeta nagusi baten heldutasunezko liburuak dugu hau.

Ibilbide luzeko hirugarren poeta bat Antton Kazabon da. Urte hauetan beste bost poema-liburu argitaratu ditu: *Emozioen kuliska* (2002), *Armiarma zuhaitzean* (2004), *Anpolai gorriak* (2005), *Irrikaren distira* (2006) eta *Hitz xuriak* (2008).

Kazabonen lehen liburuak, *Emozioen kuliska*, Xabier Leteren hitzaurrea dakar. Poesiari buruzko gogoeta egiten du bertan, eta, amaiera aldean dioenez,

Kazabonen poesia: «gutako bakoitzaren barruan adi-adi datzan gizatasun-egarriaren oihartzuna» dagoela. Ohi baino poema luzeagoetan erregistro jasoa darabil Anttonek, eta horrekin batera neurri libre eta errima ere bai. Gazteei zuzendutako poemak izanik, beherago komentatuko dugun *Irrikaren distira* izenekoan bezala, aletzen dituen gaiak gazteen sentimenduetatik hurbilekoak dira: amodioa eta desamodioa, haurtzarora utzi eta heldu bihurtu beharra, askotan torturagarri bihurtzen diren sentimenduak (damua, leialtasuna, lotsa, duintasuna, urguilua...).

*Armiarma zuhaitzean* «armiarma»ren Atik «zuhaitz»eko Zra alfabetoa errepatatzen duen poemategi didaktikoa da, eta euskal gor-mutuentzako alfabeto daktilografiko propioa osatzeko proiektuaren parte bat ere bai. Sei urtetik aurrerako haurrentzat sailkatuta dagoen obra honek natura hartzen du gai nagusizat: animaliak, landareak, meteorologi fenomenoak, zeruko astroak..., eta berriro ere





herri literaturako baliabideak erabiltzen ditu askotan doinu jakin baten arabera kantatzekoak diren poemak sortzeko. Beste poema batzuk akrostikoak edo epigramatikoak dira. *Armiarman zuhaitzean* osatzen duten poemak ondo landutako xumetasunaren ondorio dira, irudien erabilera doia, mezu argiak eta begirada koloretsu garbiak tarteko. Azken batean, jolas egiteko erritmo eta keinuak entseatzeko, kantatzeko eta errezitatzeko poema-liburua da.

Hirugarren lana, *Anpolai gorriak*, 10 urtetik aurrerakoentzat pentsatutako poema gehienak laburrak dira, sarritan onomatopeia baliatzen dutenak. Bi sekzio ditu. Lehenengoan, «Tren tran» izenekoan, hurbileko gauza eta pertsonen buruzko poemak biltzen dira: gurasoak, zenbakiak, eguraldia, txirula jotzea... Bigarrenean, berriz, «Zer ote?» izenburuaren bidez poema-igarkizunak biltzen dira.

Kazabonen laugarren obra, *Irrikaren distira*, gazteentzako lirika-liburua da. Aurrekoa baino

kultuagoa eta landuagoa, amodioaz eta desamodioaz, bakardadeaz eta galdutako haurtzaroaz hitz egiten digu:

#### BAKARDADEAREN ESKUTIK

Eguzkiak ez badit irribarrerik egiten,  
nire begiek ikusten dute,  
baina ez dute begiratzen.  
Bakardadearen eskutik  
ez dut urratsik eman nahi  
nahiagabearen oihanean barrena  
zuhaitzak kontatuz, irentsiz.  
Penak kontatuz, irentsiz.  
Ume izan nahi dut berriz.

*Hitz xuriak*, azkenik, zurtasuna aitzakia hartuta 10 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako poema-bilduma da; aurreko beste batzuetan egin bezala, natura du sentimendu lirikoaren oinarri.

Karlos Linazasoro, Pello Añorga eta Jabi Santa Cruz, aurretik poesiarik argitaratutako beste hiru



idazle, poesi liburu banaren egile dira XXI. mende honen hasierako urtetan.

Linazasorok *Zein beste mundukoa* (2008) gazte-poemategia argitaratu du, Juan Kruz Igerabideren hitzaurrea lagun. Hauxe dio, besteak beste, Igerabidek hitzaurre argigarri horretan: «Karlosek txunditurik begiratzen dio bizitzari, eta aldi berean burlaize pixka batekin, inguruan agertzen zaiona erabat benetakoa ote den zalantza egingo balu bezala». Kontraesankorra badirudi ere, erromantizismoaren galbahetik pasatako ironia da; izan ere, aldi berean, maitasuna munduko balio benetako bakartzat jotzen du. Igerabideren hitzetan, Linazasorok «maitasunari heltzen dio, zingiran itotzetik libratzen duen adar salbatzailea balitz bezala».

Linazasorok, Igerabideren jarraitzaile abantailatua den aldetik, umore-zertzeladen edo testuarteko keinuen adierazpide gisa lantzen du haiku delakoa. Hona hemen «Trenaren haikuak» ataletik hartutako bi adibide:

Tren limuria  
tunelñoak ernalduz  
gau sakonean.

Zenbat bidaide  
Desio izeneko  
tranbiaren zain!

Jabi Santa Cruz poeta bizkaitar interesgarriak *Hiriko baratzean* (2008) gazteentzako poemategia argitaratu du. Obra osoa zeharkatzen duen gai nagusia hirian preso dagoen naturarena da:

#### HIRIKO BARATZEAN

Lorazain eroa  
hiriko baratzean  
utopia jorratzen.

Beste poema batzuek maitasuna eta gure zaharren heriotza dute hizpide. Bestetan gai sozialak ere bai, ia beti liburuari titulua ematen dio baratzaren ikuspuntutik. Horietako bat da «Porruak biltzeko egunkari orria»:

Bonba-auto batek  
lau ume hil ditu Bagdaden.  
Gorpu txikiak izaretan bildu  
eta kalez kale daramate aita-amek  
lanturuen artean.  
Barraskilo batek kainaberatik igotzen du  
zerurantz,  
mukia dariola.  
Egunkari hau  
duela bi hilabetekoa dela  
konturatu naiz.  
Saminari ezin zaio baina  
datarik jarri.

Pello Añorga *Zuni* (2006) hasierako irakurleei zuzendutako liburutto baten egilea da. Paradoxa eta hitz-jokoen bidez, Añorgak ispilu-jolas bat zabaltzen du kontrako batzuk aurrez aurre jarritz: argia eta iluna, sartzeko ateak eta ateratzeko ateak, oihua eta isiltasuna, eta, azken batean, obrari titulua ematen dioten zu eta ni direlakoak.

Beste alde batetik, badira zenbait poeta lehen poesi lana argitaratu dutenak XXI. mendeko urte hauetan: Jon Suarez eta *Ilbetea dilindan* (2002), Xabier Olaso eta *Pupuan trapua* (2004), Ana



Urkiza eta *Nire hiriko poemak* (2006) eta Ruben Ruiz eta *Sekretuak belarrira* (2007).

Jon Suarezek haurrentzako hiru narratiba-liburu argitaratuak zituen *Ilbetea dilindan* plazaratu zuenerako. Poesi liburu horretan deskribatu ditugun joera nagusietatik aldentzen den poetika original bat eraiki du. Suarezen poemak lanketa zorrotz baten emaitza dira, eta beti ez dira ematen dutenak: ekiboko eta ezkutuko esanahiarekin jolasten du, berdin egiten du aliterazioan oinarritutako poema bat zein jolas intertestual edo metaliterario bat. Hala ere, haren poemak ez dira hotzak; aitzitik, haur munduarekin identifikatzen duten sentsibilitate handia darie. Hona hemen, adibide gisa, haur kanta ezagunen hitzeko jolasten duen poema hau:

Ez dut Txanogorritxo izena  
ez naiz Paristik natorren artista bat  
ez da Pintto nire txakurra  
ez nuen astoa ikusi gabardinarekin  
*Je m'appelle Fatima*  
*je suis de Marrakex*  
*et je veux être zure laguna.*

Xabier Olasok *Auskalo!* (2001) igarkizun eta ahokorapilo liburu bat argitaratua zuen, eta helduentzako poesi liburu batzuk ere bai, baina *Pupuan trapua* (2004) da berezko haur poesiaren arloan

argitaratu duen lehen liburua. Lan hori –HGL Euskadi saria jaso duen poesia liburu bakarra– ahozko tradizioko baliabideetan oinarritzen da bi poema-talde osatzeko; alde batetik, «Esna irauteko poemak», umea korrika, jolasean eta etengabeko jardueran erakusten duten poemak; eta «Lotarako kanta-kontuak», lo-kanta herrikoien birsorkuntza bat. Bilduma hau osatzen duten poema batzuk oso landuta daude eta jolas-poematzat jo daitezke, eta umorea azpimarratu behar da obra osoan zehar dabilen ezaugarri gisa.

Hurrengo urtean argitaratutako poema-liburua, *Hotsateko basoa*, lehen irakurleei zuzenduta dago, eta aurrekoaren bide beretik dator, onomatopeiak, dekorazio-olerkia eta, oro har, herri literatura oinarri hartuta.

Ana Urkizak helduentzako narratiba zein poesia argitaratu ditu, eta baita haurrentzako idazlan batzuk ere. *Nire hiriko poemak* liburua du haur poesiako lehen emaitza. (Haren) hiriko bizimoduan girotutako poema laburrak dira; han, poetaren begirada hainbat pertsonaiatan, txokotan eta animaliatan zehar ibiltzen da harat-honat. Urkiza Igerabideren jarraitzailea da, forman bezala begiradan ere:

### Farola

Gauaren pisuari men  
farola burumakurrak.





Hala ere, zenbaitetan poemako irudiaren orde z gogoeta bat eskaintzen zaigu, halako aforismo bat balitz bezala:

### **Kioskoa**

Kioskoak  
gatibu ditu  
bakardadeko pentsamenduak.

Ruben Ruiz, berriz, euskal haur literaturara berriki iritsitako etorkizun handiko idazle gazte bat dela uste dugu. *Sekretuak belarrira* lehen irakurleentzat argitaratu duen poema-liburua urteko hiletan zehar egituratuta dago, bakoitzeko hiru poema labur eskaintzen dituela. Poema horietan ematen du Ruizek ere Igerabideren zordun aitortzen duela bere burua, liburuari izena ematen dion poemak erakusten duen bezala, *Botoi bat bezala* obraren ildokoa:

EKLIPSEA  
Eguzkia bira eta bira,  
ilargia jira eta jira,  
kolpean elkartu dira:  
sekretuak belarrira.

Baliabide formalik erabilienak errima eta aliterazioa dira. Gai nagusi bat sumatzen da ekologi hondamendiekiko kezka inguruan: suteak, lehortekak, lurrikarak, balea-ehiza...; hala ere, beste batzuetan poeta natura artifizialen deskribapenean jolasten da:

PALMONDOA  
Uda-gauean su-festa;  
gurasoen babesean, ze ondo!!  
Pumm!! Pumm!!  
Zeru ilunean bi palmondo.

Amaitzeko, haur poesiako bi antologia aipatu behar dira. Horietarik lehenak, *Zaldiko-maldikoan* (2003), gaur eguneko hamabi egileren argitaragabeko poemak biltzen zituen, egile horietako batzuk poesiarik argitaratuta ez zutenak. Obrako kredituetan ez da editore literarioaren izenik agertzen, eta hitzaurrean adierazten denez, Aizkorri argitaletxearen bosgarren



urteurrena ospatzeko edizio bat da. Esan daiteke, «enkarguzko» poemak direla, baina horrek ez du galarazi poemok maila jasoan egotea. Gonbidatu gehienek formato poetiko laburrak aukeratu zituzten, eta horietatik abiatu askotariko baliabideak garatu zituzten, herri literaturatik hurbileko asonantzetatik, bertso asko kontzeptualetara, umore eta surrealismotik pasatuz. Miren Agur Meaberen poema bat, adibide gisa:

### **Kalatzoriak**

Kalatzoriak begira-begira neuzkan  
zure marrakia hondartzan egin nuenean.  
Olatua etorri eta joan.  
Kalatzoriak musuzapi zuriak harkaitzetan.

Hitz batean, *Zaldiko-maldikoan* gaur eguneko haur poesiaren joeren erakusgarri bikaina dela esan dezakegu.

Bigarren antologia *Haurrentzako euskal poesiaren antologia* (2004) izenekoa da, eta aukeraketaren arduradunak Miren Billelabeitia eta Jon Kortazar izan ziren. Aurrekoan bezala, hamabi poetaren lanak biltzen ditu baina, hartan ez bezala, aurretik argitaratutako poemak antologia da hau.

Oro har, bi antologietan agertzen dira lan honetan aztergai izan ditugun poetak; horrek pentsarazten digu, haur poesia genero minoritarioa izan arren badela poeta talde sendo garrantzitsu bat; eta, zalantzarik gabe, ahots berriak etorriko dira etorkizun ez oso urrunean.

## Bibliografía

- AÑORGA, Pello (2006). *Zuni*. Bilbo: Aizkorri.
- BILLELABEITIA, Miren; Kortazar, Jon (eds.) (2004). *Haurrentzako euskal poesiaren antologia*. Etxebarri: Alfaguara-Zubia.
- IGERABIDE, Juan Kruz (2002). *Hosto gorri, hosto berde / Hoja roja, hoja verde*. Madril: Atenea.
- (2004). *Munduko ibaien poemak*. Donostia: Elkar.
- (2004). *Poemas para los ríos del mundo*. Madril: Ajonjolí.
- (2005). *Gorputz osorako poemak*. Bilbo: Aizkorri.
- (2006). *Ilargia ezpainetan*. Donostia: Erein.
- KAZABON, Antton (2002). *Emozioen kuliska*. Donostia: Elkar.
- (2004). *Armiarma zuhaitzean*. Bilbo: Aizkorri.
- (2005). *Anpolai gorriak*. Zaragoza: Ibaizabal.
- (2006). *Irrikaren distira*. Iruñea: Pamiela.
- (2008). *Hitz xuriak*. Bilbo: Desclee.
- LINAZASORO, Karlos (2008). *Zein beste mundukoa*. Donostia: Elkar.
- LÓPEZ, Manu; ETXANIZ, Xabier (2005). *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*. Iruñea: Pamiela.
- OLASO, Xabier (2004). *Pupuan trapua*. Iruñea: Pamiela.
- (2005). *Hotsateko basoa*. Bilbo: Aizkorri.
- (2007). *Pupuan trapua / Un trapito en la pupa*. Madril: Atenea.
- ORMAZABAL, Joxantonio (2001). *Bibotza zubi*. Donostia: Elkar.
- (2002). *Irri eta barre*. Donostia: Elkar.
- (2007). *Ilunorduak eta argilaurdenak*. Donostia: Elkar.
- RUIZ, Ruben (2007). *Sekretuak belarrina*. Bilbo: Aizkorri.
- SANTA CRUZ, Jabi (2008). *Hiriko baratzean*. Iruñea: Pamiela.
- SUAREZ, Jon (2002). *Ilbetea dilindan*. Iruñea: Pamiela.
- URKIZA, Ana (2006). *Nire hiriko poemak*. Iruñea: Pamiela.
- VV.AA. (2003). *Zaldiko-maldikoan*. Bilbo: Aizkorri.

## Poesía infantil y juvenil vasca en el siglo XXI

*A pesar de que la poesía infantil y juvenil vasca actual cuenta con un reducido público lector, su calidad está fuera de toda duda. En los primeros nueve años del nuevo siglo se ha publicado tan solo una veintena de obras, continuando así la tendencia de poca producción de décadas anteriores. Entre los autores, ha sido Juan Kruz Igerabide el que mayor influencia ha ejercido sobre la poesía infantil vasca en estas dos últimas décadas, tanto desde sus propuestas teóricas como desde su práctica poética, muy en especial mediante la introducción y actualización del haikú y su personal sensibilidad visual de la naturaleza. Asimismo, los ecos de la poesía popular también están muy presentes en la poesía infantil actual. En lo que a la poesía juvenil se refiere, predominan los temas iniciáticos, los poemas de amor y los que giran en torno a la angustia vital.*

*Entre los poetas que han publicado en estos años, hay varios veteranos, como el propio Igerabide, Kazabon, Ormazabal, Linazasoro, Añorga o Santa Cruz; pero es una buena noticia ver nuevos nombres que se asoman a este género, como Olaso, Ruiz, Suárez...*

*Por último, hay que señalar que la poesía infantil vasca comienza a ser objeto de antologías y obras colectivas, como Zaldiko-maldikoan y Haurrentzako euskal poesiaren antologia.*

## Basque Poetry for Children and Young Adults in the 21<sup>st</sup> century

*Although today's Basque poetry for children and young adults has a limited readership, there is no doubt whatsoever about its quality. In the first 9 years of the new century only about 20 works have been published, the trend of the previous decades for producing little thus continuing. Among the authors it has been Juan Kruz Igerabide who has exerted the greatest influence on Basque children's poetry over the last two decades, not only due to his theoretical proposals, but also his poetic practice, in particular through the introduction and updating of the haikü and his personal visual sensitivity of nature. At the same time, the echoes of popular poetry are also very much present in current children's poetry. As far as poetry for teenagers is concerned, initiation themes, and poems to do with love and angst predominate.*

*Among the poets who have had works published over these years, there are some veterans, like Igerabide himself, Kazabon, Ormazabal, Linazasoro, Añorga or Santa Cruz; but it is good news to see fresh names cropping up in the genre, like Olaso, Ruiz, Suárez...*

*Finally, it should be pointed out that Basque children's poetry is starting to be the object of anthologies and collective works, like Zaldiko-maldikoan and Haurrentzako euskal poesiaren antologia.*



# Haur-poesiaren aitzindariak

Juan Kruz Igerabide



**O**so serioa da gure poesia. Goi-arnasaren bila beti. Inguruko hizkuntzetan, poetarik handienek noiz edo noiz begiak zeruetatik jaitsi eta haurren altuerara egokitu dituzte. Zaila da irudikatzea Juan Ramón Jiménez baino poeta goitiarragorik: haren jainko-nahia, haren igo beharra. Eta, hala ere, noizbehinka, lurreko harri koxkorrak bildu eta poema jolastiak egiten zituen, tortoloxetan jolasten ari balitz bezala. Berdin Machadok; lurraren beldur okrea destilatu eta gero, erreka batean oinak sartu eta urarekin jolasten zuen. Harrigarriagoa izan zen oraindik surrealisten; alde batetik, eromenaren muga irristaka; bestetik, gizartearen kritika garratza eginez; eta, noizbehinka, halere, begirada errugabea bilatuz; halaxe Prévert, halaxe García Lorca, halaxe Alberti.

Gure euskal poeten kezka, literaturaz gainera, hizkuntzarekiko borroka etengabea gauzatu izan dira; eta badirudi ez dutela aski denbora izan harri koxkorrak biltzeko edo oinak errekaetan plisti-plasta ibiltzeko.



Hala, bada, *Gure poesia* haurrentzako bilduma osatzea bururatu zitzaidanean bere garaian, asko kostatu zitzaidan poemak aukeratzea. Baina konturatu nintzen, dena dela, gure poeta nagusiek ere bazekitela harri koxkorrekin jolasten eta errekaetan oinak bustitzen, nahiz eta beste herrialdeetakoek baino gutxiago egin, agian beranduxeago jaio zirelako eta gerrak hegoak moztu zizkietelako hegan egiten ikasi baino lehen.

Lizardik baditu poema batzuk haurren begiradatik gertu daudenak, nahiz eta darabilen hizkuntza poetikoak gaur egungo haurrei eragozpenak ekarri. *Xabiertoaren eriotza*, esate baterako. Oso poema gutxi ezagutu ditut hain beteak, dramaren intentsitatea ezari-ezarian hain gora daramatenak, Eguberrietako jaiotza-ospatzea (Jainkoaren semearen jaiotza) haurtxo hil berriarekin uztartua, inolako kexurik gabe, min-azantarik gabe, xalotasunez. Horrek berak zorrotzen du eztena are zorrotzago.

Zenbat zerate, baiña?  
Bat, bi, iru, amar,  
ogei, eun, milla...Gutxi!  
Yai ontako, geago  
nik bear!



Poema honetan, Lizardik bere burua makurtzen du Jainkoaren nahiaren aurrean, eta azalpen bat bilatzen dio; Jainkoak Jesusen jaiotza ospatzeko aingerutxoak behar ditu zeruan, eta horregatik eramaten ditu ume jaioberriak gora. Poema hori ikuspegi ez-erlijiosotik irakurtzen baldin bada, berebiziko krudelkeria (xalotasun guztiz adierazia) gertatzen da. Haur ipuinetako ikaragarrikerien pare. Mereziko luke azterketa monografiko bat poema horrek, baina hau ez da lekua.

Lizardiren beraren *Bultzari leihotik* ezagunak dakarren estribiloa ere (haur) poesiaren gailurretako bat da, ia itzulezina beste hizkuntzetara. *Haur*-poema bat dirudi bere xumetasunean, bere erritmoan, bere irudi xaloan (horko goizaren metafora horrek umeen marrazki batetik aterea dirudi).



Oi, lur, oi lur!  
 Oi, ene lur nerea!  
 Oi, goiz eme,  
 parre gozoz ernea!

Orixerengana etorrita, haurren girora hurbiltzeko sentiberatasun eta hurbiltasun berezia erakusten ditu, zalantzarik gabe herri-literatura sakon lantzetik datozkionak. Jakina, oso baserri-girokoa da Orixeren sentiberatasun hori; ardikumea egiten ikustea, esate baterako, herri txikietako umeak biziki erakartzen gintuen kontua zen. Gogoan dut zer nolako zirrara eragiten zigun umetan belazean halako gertaerei begira egoten ginenean. Bestalde, Orixek oso ondo daki tradizioko piezak moldatzen edo dauden-daudenean txertatzen bere lanetan. «Talo-talo-talotxin» pieza nabarienetako bat da.

Talo, talo, talotxin,  
 ator etxera Matxin.  
 Gaur arkumea il diagu,  
 opilak erre ditiagu.  
 Hator, hator jatera,  
 Eta gero jolastera.

Eta bide horretatik jarraituko du gerra ostean Nemesio Etxanizek, tradizioa, bertsolaritza eta poesia jantzia uztartu nahirik. Ez da poesia didaktikoa berarena, baina bai eskolaren hurbilekoa, dotrinara joaten diren umeekin lantzekoa, tradizioari eutsi nahirik eta euskararen alderdi sortzailea bultzatu nahirik.

Bat eta bi  
 iru eta lau.  
 Amak uretan  
 sartu nau  
 Bi eta lau eta  
 beste bi, sei  
 Amak etxetik  
 egin dit dei.

Lauaxetaren bidea, berriz, bestelakoa dugu. Iturriagaren (La Fontaineren fabulen ildo euskaraz





jorratu zuenaren) bidetik hurbilago, haurrengana hezitzaile-jarrerarekin gerturatuz, betiere irakaspen bat eskainiz.

Arrotz baten lagun-nayez  
ez saldu iñoz anayak.  
Etxeko baten aberiez  
sartuten dozaz etsayak.

Harrigarri samarra gertatzen da Lauaxetarena, bere garaian Europako aireei atea gehien zabaldu zizkiena izanik, joera klasizistako halako piezetara jotzea haurrei zegokienez Orixeri gehiago zegokion berari baino.

Horiek horrela, haur-poesiaren alorrean, halako doitasun falta bat nabaritzen da Hegoaldeko idazleei dagokienez, eta doitasun falta horrek luze jarraituko du, salbuespenak salbuespen.

Ez hala, ordea, Iparraldean, Oxobi eta Minaberriri esker. Horiena beste zerbait da. Oxobik haur-poesiaren haria aurkitzen du, inguruko hizkuntzetan egin izan diren bideen pare, eta lortzen du nolabaiteko haur-hizkera kantari bihurtzea poesia. Eta bide horretan barneragotzen da, are, Minaberri. Erritmoa, errima jolastia, irudi xumeak, haur-hizkeraren

irudikapena, inguruari haur-begiradaz ohartuki begiratzea...

Gauzak horrela, euskal haur-poesiaren benetako aitzindariak hiru direla esan genezake: Oxobi, Minaberri eta Nemesio Etxaniz. Horiek jardun baitziren ohartuki eta ofizioz langintza horretan. Beren helburu estetiko bihurtu zuten haur-poesia.

Jakina, beste poeta askoren piezak ere haurrek beregana ditzakete: Elissanbururenak, Etxeparerenak berak ("Euskara, jalgi hadi mundura" haurren ahotan zenbat bider ez da entzun), Miranderrenak (Igelen poema sinbolista zailak badu haur-irakurketa xalo baten aukera, esate baterako), Arestirenak, Gandiagarenak, Artzerenak, Lekuonarenak ("Errota zahar maitea"-k, ukitu existentzialista eta guzti, badu haurren hizkeratik oso hurbil dagoen prozedurarik). Atxagaren "Mary Lanford" poematxo ere bete-betean sar liteke haur-poesiaren esparruan.

Dena dela, aipaturiko hiru poeta horiei dagokie, nik uste, euskal haur-poesiaren aitzindaritzatza. Batez ere, haurren mundutik eta haurren mundurako idatzi zutelako. Badago, alde batetik, egilearen



jarrera eta asmo bat, bere estetika bideratzerakoan. Eta, bestetik, badago xede-irakurle bat, betiere heziketa-edo etxe-girokoa. Hiru idazle horiek nabarmenki lortzen dute giro horretara hurbiltzea eta jarrera didaktikoetan eta moralkerian ez erortzea, eta orobat hizkera melengatik aldentzea, poesia xume bai baina estetikoki sendoa eraikiz.

Haur-poesiak baditu erronka bi: haurren mundutik ez urruntzea joera intelektualista batez; eta hurbiltze horretan umekeria ez erortzea, hala hizkera melenga erabiliz, nola edukietan tontakerietatik hurbil dauden gauzak esanez. Oso da zaila orekari eustea. Oxobiren “Negutik udarat” poema (Xirula, xiruli...) ozta-ozta libratzen da edukian gauza hutsalak esatetik; alabaina, lortzen duen giroa eta musika hain dira biribilak, non iradokizun-indarrak berak salbatzen eta gailentzen baitu poema.

Xirula  
Xiruli  
Sagarren puntan mihula  
Sagarren pean mihuli  
Xiru liru la  
Xiru liru li.  
(...)  
Xirula  
Xiruli  
Emanen diat, Pampili,

ttuntunarekin xirula  
Xiru liru li  
Xiru liru la

Antzeko zerbait gertatzen da Minaberriren “Xoria kantari” rekin. Gauza arrunt bat baino ez du esaten, ez dago irudi poetikorik; baina piezaren musikalitateak berak sortzen du irudi poetikoa.

Tiru liru li  
Xoria kantari  
Tiru liru la  
Zeruan dabila

Tiru liru le  
Habian arraultze  
Tiru liru le  
Arrauzean kume

Tiru liru li  
Xoria kantari  
Tiru liru la  
Primadera hor da.

Berdin gertatzen da «Eiherazaina»-rekin. Deskripzio arrunt bat besterik ez da, baina errepikaren eta onomatopeien bidez «giro» bat sortzen du, giro iradokitzailea, eta horrek piezari arnasa poetikoa ematen dio.

Nemesio Etxanizek ez du lortzen aurreko bi horien musikaltasuna eta indar iradokitzailea, baina



edukiaren aldetik beteagoa da; esan egiten du, bertsolari onenen bidetik; betelanik ez, apaingarri gehiegirik ez, baizik eta esan, adierazi.

Argia koxk eta koxk  
dabil gailurrean;  
lurruna dariola  
lurra ibaietan  
airea zuri-urdin  
dugu zeruetan;  
zelaiek jai digute  
lor-ezteietan.  
[...]  
Argia koxk eta koxk  
zoroko gaiztoa.

Gure haurrak amari  
barre-irri gozoa.  
Argia eta Potxolo  
bikote xaloa;  
biek argitzen dute  
amaren golkoa.

Bi tradizio desberdin; bata kaskarinagoa izateko arriskuarekin; bestea, berriz, lehor samarra gertatzeko arriskuarekin. Biek ala biek dute herri-tradizioan antzeko sustrairik; biek ala biek erakusten digute zer aukera dauzkagun euskaraz haur-poesia egiterakoan.

Bi bide. Eta, jomugan, ene lur nerea.

### La poesía infantil y los autores clásicos del euskara

*Muy seria ha sido la poesía vasca, en aras de la suprema inspiración. En las literaturas vecinas los poetas olímpicos han bajado de vez en cuando de sus pedestales para situarse a la altura de los niños. Nuestros poetas, en cambio, unen su esfuerzo estético a su lucha desesperada por la supervivencia lingüística, algo que no les ha permitido chapotear de vez en cuando en los charcos junto con los niños. De todas maneras, en el fragor del combate con las palabras, dejan escapar de cuando en cuando atisbos de una poesía juguetona o de angelical inocencia. El poema Lizardi, inspirado en la muerte de su hijo de temprana edad, resulta conmovedor por su autenticidad de sentimiento y su manera tan enternecedora de dirigirse a los niños a los que habla, sin perder un ápice de dramatismo en la escena. Orixé, por su parte, nos regala diversas escenas campestres en las que los niños son protagonistas, demostrando un profundo conocimiento de la mentalidad infantil en el mundo rural. Por este mismo camino, Nemesio Etxaniz configura una extensa obra con claro afán pedagógico, convirtiéndose en uno de los primeros poetas para niños, junto con Oxobi y Minaberri, ambos autores del otro lado del Bidasoa que aportan un aire musical y lúdico que nos conecta con la mejor tradición europea.*

### Children's Poetry and Classical Authors in the Basque

*Basque poetry has been very serious in the interests of the supreme inspiration. In the neighbouring literature the Olympian poets have got down from their pedestals occasionally to be at the level of children. Our poets, by contrast, combine their aesthetic efforts with their desperate struggle for the survival of the language, and this has not allowed them to splash around occasionally in puddles beside the children. In any case, in the din of the fight with words, from time to time they let slip hints of poetry that is playful or of an angelic innocence. The Lizardi poem, which took its inspiration from the death of his son at a young age, is moving owing to the genuineness of feeling and the way the author so movingly addresses the children he speaks to, without losing an inch of the dramatic quality in the scene. Orixé, for his part, delights us with various rural scenes in which the children play the leading roles; he shows a profound knowledge of the mentality of children in the rural world. Along similar lines, Nemesio Etxaniz builds up an extensive work with a clear pedagogical eagerness, becoming one of the first poets for children along with Oxobi and Minaberri, two authors from the other side of the Bidasoa [the French-administered Northern Basque Country] who contribute a musical, playful touch that connects us with the best European tradition.*